

OIARTZUN / Manuel Lekuona bibliotekaren lehenengo solairua gaur irekiko da

Manuel Lekuona bibliotekaren zati bat gaur irekiko da. Bibliotekaren beheko zatia -gaur egun behin-behinean erabiltzen dena- eta lehenengo solairua -haurren atala- irekiko dira. Gaurtik aurrera, hortaz, ate nagusitik egingo da berriz ere bibliotekako sarrera, alegia, Donibane kaletik.

Helduentzako eskaintza beheko solairuan eskainiko da oraindik ere. Izan ere, helduen literatura, informaziorako. eskaintzen den bigarren solairua irekitzeko apal berriak iritsi zain dago biblioteka.

Biblioteka egokitzeko -igogailua jarri da eta komunak moldatu dira- eta teilatua konpontzeko lanak nahi baino gehiago luzatu dira, baina zerbitzu hobea eskaintzeko egindako lanak direnez, merezi izan duela pentsatzen du Udalak.